

Gipuzkoako Batzar Nagusiak, batzar ibiltaria. 2025-10-15

Eider Mendoza Larrañaga, Gipuzkoako diputatu nagusia

Lehendakaria, Altzoko alkatea, Batzar Nagusietako presidentea eta kideak, lagunak... egun on denoi

Atzo Donostian super-ordenagailu kuantikoa abiarazi zen; etorkizunaren etorkizuna markatzen duen azpiegitura. Gaur goizean Altzon, berriz, gure lurraldearen historiari estuki lotutako gune honetan, ezagutzen dela Gipuzkoa hitzaren aipamenik zaharrena oroitzen ari gara.

Iragana, oraina eta etorkizuna lotzen dituzten lokarriak oso sendoak dira gure lurraldean eta gure herrian. Iragana ulertu gabe, nekez ulertu daiteke oraina, nekez imajinatu etorkizuna.

Zarata handirik atera gabe, gipuzkoarrok ohitura dugun moduan, baina gure lurraldearen sustraiak hobeto ezagutzeko eta bat eginik ospatzeko parada edukitzen ari gara, milurtekoaren harira. Eta ez da gutxi, bizi ditugun garaiotan. Behar ditugulako topaguneak, honelako momentuak, azpimarratu eta balioa emateko partekatzen ditugun balioei, usadioei, kulturari, hizkuntzari, erakunde propioei... Guztiak azpimarratu eta balioa emateko.

Esango nuke horretantxe ari garela gaurkoan ere, Altzon. Pentsatuz, gainera, duela mila urte hemendik ez oso urrun batzartuko zirela lehen ipuskoarrak; edo haietako batzuk, behintzat.

Zentzu komunitario indartsua duen lurraldea da Gipuzkoa, mendeetan errotzen joan dena. Zailtasun garaietan, aurrera egiten lagundu digu zentzu horrek, gainontzeko euskal lurraldeekin harremanetan eta elkar-ekintzan.

Joan den uztailaren 5ean Tolosan egindako soka-dantzarekin irudikatu genuen moduan, gaurkoan ere aldarrikatu nahi dut herri bat, lurralde bat, ezin daitekeela gizabanakoen batura soila izan. Behar ditu balio partekatuak, behar du komunitate sentipen sustraitua. Herri nortasun propioa. Horrek ekarri gaitu honaino, mendez mende, eta horri eutsi behar diogu gipuzkoar eta euskal herritar gisa etorkizuna izan dezagun.

Aurrera begira, komunitate balio horiek dira, ziurgabetasunez betetako mundu batean, sustraiak lurrean sendo, norabidea argi, aurrera egiteko modua.

Xabier Retegik dioenez, komunitatea da: “lurralde berean elkarrekin bizita, beharrianak konpartitu, desfioei aurre egin eta lankidetzan aurrerabide amankomuna bilatzen duen pertsona, elkarte eta erakunde taldea”.

Hori da, nire iritziz, etorkizunera begira indartu beharreko zentzua.

Indibidualismoa, kontsumismoa eta indarkeria mundu zabalean gailentzen ari diren honetan, asmatu behar dugu, etorkizunera begira, elkarri lotzen gaituzten balio horiek guztiak indartzen.

- Indartzen euskara, hizkuntzaren biziberritzean atzeraldia ekidin eta jauzia eman dezagun.
- Indartzen landa ingurunea eta natur ondare bizia.
- Indartzen ezaugarri dugun lurralde oreka, herri txikiek lurralde osora begira duten funtzioa sendotuz, zerbitzu berritzaile eta partekatuaz landuz, hiriguneetako ongizate maila eta herri txikietakoa berdinduz.
- Indartzen gizon eta emakumeen berdintasuna.
- Indartzen elkartasuna, bereziki gure artean zailtasun gehien dituztenei eskaintzen diegun gizarte babesa; baita ere, munduan sufritzen ari diren nazioekiko elkartasuna, azken hilabeteotan modu berezian Palestinarekiko eta Ukrainarekiko elkartasuna.
- Indartzen gure ekonomia ehunaren berrikuntza gaitasunak eta lehiakortasuna, aurrera begira ere pertsona guztien ongizatea zaindu ahal izateko.
- Indartzen gure buruari eman dizkiogun herri erakundeak, indartzen euskal lurraldeen arteko elkarlana, ziurgabetasunaren aurrean bermatu dezagun gure herriaren geroa.

Lankidetzan eta berrikuntzan aitzindaria den lurraldea gara. Balio horietan sakonduz, lortu behar dugu Gipuzkoa izatea, gerora ere, herri baten parte den komunitate arduratsua, berdinzalea, euskaraz bizi dena, orekatua eta bidezkoa, pertsona guztien ongizate osoa zaintzen duena.

Ikuspegi zabal eta anitz batetik, zalantzarik gabe, baina partekatzen dugun horretan guztian indarra jarritz.

Abestiak nola, etorkizunean ere “Gipuzkun bagera” abesten jarraitu nahi dugu. Gure herria osatzen duten gainontzeko lurraldeekin batera, izaten jarraitu nahi dugu.

Baginen, bagera eta, guztion artean komunitate balio horiei eusten asmatzen badugu, izango gera.

Mila esker.